

Giza eskubideen kultura arriskuan!

Jon Mirena Landa

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen EHUko Unesco katedraren zuzendaria

Hauteskundeak ate-joka ditugula, aspaldiko partez dena hankaz gora jar daiteke-elakoan dabil le-
loa. Hankaz gora zeintzuk eta orain arte politikan izan diren akordio «ukiezinak» daude eta, batez ere, Espainiako Estatuaren lurralde-egitura-ketarekin zerikusia daukaten gaiak: hots, Katalunia ez ezik, Euskadi edota Nafarroa (ez lehen bezala, baina oraindik ere) eztabaidaren erdi-erdian egonik.

Lurraldetasunaren eztabaidan ohi-koa da konstituzionalismoaz hitz egitea. Konstituzio oro, ordea, jakina denez, lurraldetasunaz haratago doa eta, areago, bere sakoneko mortasuna beste alorretan datza: hiritar guztien funtsezko eskubideak bermatzean, hain zuzen ere. Zuzenbide-Estatu Demokratikoa izatekotan, funtsezko eskubideek, beste hitzetan giza eskubideek, beste ezeren aurretik, berebiziko garrantzia eduki behar dute, eguneroko elkarbizitzari bizkarrezurra emateraino, bai eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial edota kulturalen alorrean; bai eta, era berean, beste herrialdeekiko begirune, elkarlan, elkartasun, bake edota planeta osoaren zainza antolatzerakoan. Beste era batera esanda: eskubideen bitartez ez da bakarrik bermatu behar, norberaren askatasun-esparru indibidualik eta horren mugak (adierazpen-askatasuna; erlijio-askatasuna; ideologia-askatasuna, eta abar), baizik eta eskubideez berdintasunean gozatzeko baldintzak, hala nola, sozioekonomikoak (lan-eskubidea, lan egiteko baldintza egokiak, etxebizitza duina, gizarte-segurantza, hezkuntza, osasuna, eta abar) zein planeta mailakoak (ingurumen osasuntua, jasangarria, denontzako).

Konstituzio demokratiko orok halako plana ahalbidetu beharko luke, denek gutxieneko eskubideak eta gutxieneko bitalak eduki ditzaten. Denek. Ez bakarrik estatu batekoek; ez bakarrik etnia batekoek; ez baka-

rrik gizonek; ez bakarrik dirudunek; ez bakarrik heterosexualek; ez bakarrik ideologia nagusi jakin batekoek; ez bakarrik erlijio batekoek edota erlijiorik gabekoek; ez bakarrik egungo belaunaldikoek; eta abar. Hau da, Nazio Batuetako 2030 Agendak berak garbi asko adierazten duen moduan: inor ez dadila atzean gelditu izan ere, eskubide-eskaintza unibertsalean, berdintasunean oinarrituta, zilegitasuna topatu beharra baitago, elkarbizitza antolatzeko orduan. Eta horretan Giza Eskubideen Kultura halako ongari fruitu-emaile bezain eragin-garri suertatu da historikoki, ez bairik gabe.

Begira dezagun atzera. Pixkanaka, baina gelditu gabe, etengabe, ziri-miri gisa, azkeneko 200 urteetan ointzen joan da egun ezagutzen dugun eskubide-kultura unibertsala: Frantziako iraultzarekin batera hasi zen eta gero nazioarteko komunitatea antolatze modura ere iragan zen. Nazioarteko egitarau zehatza, jada berdintasunaren (alegia, emakumeen lekua bermatzen duen) printzipio jatorrari helduta, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eskutik (1948) etorri zen. 1966ko Nazioarteko Itunek beste zedarri bat ezarri zuten, giza eskubideen kulturaren aro berri

bat inauguratuz. Harrezkerotik, etengabeak izan dira aurrerako jautziak: hala nola, garrantzitsuenetariko batzuk aipatzearen, arrazakeriaren aurkako hitzarmena (1965), emakumeen aurkako diskriminazioari buruzkoa (1979), torturaren aurkako (1984), haurren eskubideen ituna (1989), langile etorkinen eskubidei buruzkoa (1990), pertsona desgaituen hitzarmena (2006), edota behartutako desagertuena (2006). Hitzarmenak, askotan esaten denaren aurka, ez dira aldarrikapen hutsa, indarrak gabekoak: horrek sustatzen du halako kultura, nazioartetik tokiko-estatuko jurisdikzioetara ere heltzen bukatzen dena. Edozelan ere, kultura horrek halako armiarma-sare bat sortu du, eskubide-egoerari buruzko bertsio alternatibo bat ematen duena. Bertsio hori, autoritatez jantzia, fidagarria, sinetsgarria, estatu bertsio ofizialak auzitan jartzen ditu askotan, horren bitartez gizarte zibilak borroka aurrera eramateko bide berriak irekiz. Izan ere, informazioa boterea da-eta. Beraz, edozein estaturen informazio-monopolioa apurturik, zuzenbide justuago baten aldeko bidea ireki egin zen giza eskubideen nazioarteko estandarren bitartez.

Nazioarteko giza eskubideek ez dute dena konpontzen, ez. Ez dute gehienetan indarrak hainbat injustizia zehatz iraultzeko. Baina badute bai indarra, aldaketa prestatzeko, eragiteko. Zeren eta aldaketa instituzionala, sakona, epe luzekoa, ez baitator zerutik, bat-batean, ipuinetan bezala. Benetako gure munduan aldaketak denboraz eta kemenez eragin behar dira. Eta horretan, dudarik ez, giza eskubideen kultura bide-lagun eduki dugu, eta egun oraindik ere badugu.

Baina aitortu beharra dago, lehenengo aldiz Bigarren Mundu Gerratik hona, giza eskubideen kultura auzitan ari dela jartzen. Mundu osoan ez ezik, Espainiako Estatuan ere bai. Auzitan, gainera, kultura horren bihotzera eraso zuzentzen: alegia, berdintasun printzipiora. Etorrin, emakume, gutxiengo nazional edota etniko, LGTB edota ezberdin diren beste edozein talderen kontra jotzen dute eskuin muturretik batik bat. Batzuetan hitz gordinekin, beste batzuetan zeharka-ko eran, baina helburu berberaz.

Urteetan lortutakoa oso azkar gal genezake. Garaz gabilza, ordea: kontzientzia har dezagun!

Lehenengo aldiz Bigarren Mundu Gerratik hona, giza eskubideen kultura auzitan ari da jartzen. Mundu osoan ez ezik, Espainiako Estatuan ere bai. Auzitan, gainera, kultura horren bihotzera eraso zuzentzen

Ezuste paraleloa hartu dut Javier Maroto eta Alvaro Uribe entzunda, oso denbora gutxian iritsi zaizkidan bi bideotan. Batean Uribe Kolombiako presidente ohiak Senatuan aitortzen du laurogei aldiz nahiago duela armak hartu dituen gerrillari bat, difamazioan dabilen soldatapeko hiltzaile moral tropa bat baino (cf. «sicariato moral difamando»). Bideoa gaizki interpretatu ez badut, Gustavo Petro senatariari esaten dio, honek filibusteroa deitu ondoren. Konparazio bitxia, nork eta berak eginda, bertako bake prozesuan



JIRA
Angel Erro

inplikaturak ibilitako Uribe berak. Bitxia, iraganera jo izatea nahiago. Bitxia, politikaren berezko tirabira ohiokoa (akusazioak barne) ezin eramana. Susmo txikia sartu zait Uribe eraman ezin duena ez ote den jolas politikoan eragile berriek ere bete-betean parte hartzea.

Gauza bera pentsatu dut Marotok Arabako diputatugaiaren arteko eztabaida batean erakutsitako haserrearen aurrean. Maroto urduridago. Seguruenez ez du karguan ezin jarraitzearen ideia buruan erabili ere. Baina handitzen doan aukera da. EH Bilduren hautagaiaren aurka egin zuen eztabaida, alkatea zeneko akordioez ahaztuta. Aporafobia aurpegiaratu zion Ruiz de Pinedok, datuekin. Marotoren erantzunak Uriberenaren susmo bera piztu dit.

Gernika

Estrategia militarra milimetroraino antolatuta zeukaten faxistek. Astra ez zuten bota: armak behar zituzten. Andra Mari eliza ere zutik utzi zuten: berrogei urtez eseri ziren faxisten lagunak elizako lehen lerroan. Ez dakit kontzientzia garbitzeko beharrik izan zuten, baina Jaungoikoaren izenean hitz egiten dutenen babesarekin egin zuten egin zuten guztia. Eta igandero erakusten zuten nortzuk izan zuten. Berrogei urtez zapaldu zituzten faxismoaren aurka eta Euskal Herriaren alde altxatu ziren familiak. Gernika erre zutenen, haren kale ede-



BIRA
Onintza Enbeita

rretan bizi izan zirenak txabolelara joan ziren, edo senideen baserrietara, edo batek daki nora. Gernika berria, gerrako presoek harriz harri eraiki zutena, badakigu nortzuen artean banatu zuten. Eta orain, ez dugu horretaz guztiaz hitz egin nahi. Ez omen du merezi historiaren urari eragitea.

Etxeak kendu zizkiguten, gure senideak atzamarrez seinalatu zituzten preso har zituzten, zigortu egin zituzten euskaraz hitz egitearren, Francori ohorezko ikurra eraman zioten, gure basoak bota eta dirua eurentzat hartu zuten. Etorri ziren, Gernika erre zuten eta joan egin ziren. Baina haiek joan zirenean, haien lagunek zapaldu egin gintuzten berrogei urtez, eta horretaz hitz egiten ez badugu, ez dugu benetako memoriarik eraikiko.